

**BANAKAKO GALDE-SORTA****GALDE-SORTA ZK.:**

--	--	--	--	--

PERTSONA ZK.:

--	--

Euskal Osasun Inkesta 2018

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 4/1986 ESTATISTIKA-LEGEA:**

- 9tik 16ra bitarteko artikulua: pertsona edo entitateek eskatzen zaien informazio estatistikoa emateko obligazioa dute, beren izaera fisiko edo juridikoa, publiko edo pribatua aparte utzita.
- 19tik 23ra bitarteko artikulua: emandako informazio oro sekretu estatistikopean geratu da, eta inola ere ez zaio emango banako datuak inolako pertsona edo entitate pribatu nahiz publikori.
- Nahi baduzu, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo horien aurka egiteko eskubidea baliatu dezakezu, Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzan (Donostia kalea, 1, 01010, Vitoria-Gasteiz), Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

ESTATISTIKA SEKRETUPEKO INFORMAZIOA.

GALDE-SORTA ZK.

PERTSONA ZK.

IZENA _____

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

KISH:

BAI

EZ

PANEL_f13:

BAI

EZ

PANEL_b13:

BAI

EZ

OSASUN SISTEMA.

Honako galdera hauek, egungo osasun-sistemari buruz (osasun-zentroak, ospitaleak, etab.) daukazun iritzia ezagutzeko dira. Egin zirkulu bat zure erantzunari, eta erantzun galdera guztiei ordenari jarraituz, kontrakorik adierazten ez bada.

1. **Oro har, pozik al zaude azken urtean zuk eta zure familiak erabili dituzuen osasun-zerbitzuekin? Zer esango zenuke, oso pozik, nahiko pozik, ez hain pozik ala ez zaudela batere pozik? Adierazi horietariko bat.**

Oso pozik 1
Nahiko pozik 2
Ez hain pozik..... 3
Ez nago batere pozik 4

2. **Zure osasun-arazoak eta beharrizanak bakarrik kontuan hartuta, zure ustez euskal osasun-sistemak zure osasun-beharrizan guztiak ondo betetzen ditu?**

Pozik nago, nire beharrizan guztiak betetzen ditu 1
Nire beharrizan guztiak nahiko ondo betetzen ditu, baina uste dut beste zenbait atentzio sartu beharko liratekeela..... 2
Ez ditu nire osasun-beharrizan guztiak betetzen 3

3. **Nola ordaindu beharko litzateke etorkizunean osasun-asistentzia?**

Zergen bidez guztia, eta hiritar guztiek izan dezatela asistentzia 1
Zati bat zergen bidez, eta beste bat hiritar bakoitzak ordainduta..... 2
Hiritar bakoitzak bere asistentzia medikoa ordaindu beharko luke 3

OSASUNA.

Jarraian, zure osasunari buruzko galdera batzuk egingo dizkizugu.

Egin zirkulutxo bat zure erantzunari dagokion zenbakian (erantzun bat baino ez galdera bakoitzeko).

4. **Oro har, zure ustez nolako osasuna daukazu?**

Bikaina 1
Oso ona 2
Ona 3
Hala-holakoa 4
Txarra 5

5. **Ondoko galdera hauekin, jakin nahi dugu azken 4 asteotan nola sentitu zaren eta gauzak nola joan zaizkizun. Galdera bakoitzari, emaiizu mesedez zu sentitu zarenetik hurbilen dagoen erantzuna. Azken 4 asteotan zenbat aldiz...**

	Beti	Gehienetan	Askotan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ere ez
a) ... egon zara oso urduri?	1	2	3	4	5	6
b) ... sentitu zara lur jota, zerk animatu aurkitu ezinik?	1	2	3	4	5	6
c) ... egon zara lasai eta bakean?	1	2	3	4	5	6
d) ... sentitu zara gogorik gabe eta triste?	1	2	3	4	5	6
e) ... izan zara zoriontsu?	1	2	3	4	5	6

Zure osasuna, gaur bertan

Atal bakoietzean, markatu aukera BAKARRA; zure osasun egoera GAUR BERTAN nolakoa den hoberen deskribatzen duena.

6. Mugikortasuna

Ez dut arazorik oinez ibiltzeko	1
Arazo arinak ditut oinez ibiltzeko	2
Arazo moderatuak ditut oinez ibiltzeko	3
Arazo larriak ditut oinez ibiltzeko	4
Ezin naiz oinez ibili	5

7. Norberaren zainketa

Ez dut arazorik garbitu edo janzteko	1
Arazo arinak ditut garbitu edo janzteko	2
Arazo moderatuak ditut garbitu edo janzteko	3
Arazo larriak ditut garbitu edo janzteko	4
Ezin naiz garbitu edo jantzi	5

8. Eguneroko zereginak (Adibidez: lan egitea, ikastea, etxeko lanak egitea, familia harremanak, aisialdia)

Ez dut arazorik nire eguneroko zereginak egiteko	1
Arazo arinak ditut nire eguneroko zereginak egiteko	2
Arazo moderatuak ditut nire eguneroko zereginak egiteko	3
Arazo larriak ditut nire eguneroko zereginak egiteko	4
Ezin ditut nire eguneroko zereginak egin	5

9. Mina / Ondoeza

Ez dut minik, ez ondoezik ere	1
Min edo ondoez arina dut	2
Min edo ondoez moderatua dut	3
Min edo ondoez handia dut	4
Min edo ondoez jasanezina dut	5

10. Ansietatea / Depresioa

Ez dut antsietaterik, ez depresiorik ere	1
Ansietate edo depresio arina dut	2
Ansietate edo depresio moderatua dut	3
Ansietate edo depresio handia dut	4
Ansietate edo depresio jasanezina dut	5


Zure osasun egoera, gaur bertan.

11. Jakin nahi dugu zure osasun egoera **GAUR BERTAN** zein neurritan den ona edo txarra.

- Eskala 0tik 100era zenbakitua dago.
100 imajinatzen ahal duzun osasun egoerarik onena da.
0 imajinatzen ahal duzun osasun egoerarik txarrena da.
- **Jar ezazu X** bat, eskalan, zure osasun egoera **GAUR BERTAN** nolakoa den adierazteko.
- Orain, hemen behean duzun laukian, **idatz ezazu eskalan jarri duzun zenbakia.**

ZURE OSASUNA GAUR →

Imajinatzen ahal
duzun osasun
egoerarik onena



Imagmatzen anal
duzun osasun
egoerarik txarrena

12. Osasun-arazo bat dela-eta, pertsonak normalean egiten dituzten jarduerak egiteko mugatuta ikusi duzu zure burua, azken 6 hilabeteetan?

- Bai, oso mugatuta 1
Bai, mugatuta, baina ez larri..... 2
Ez, bat ere ez 3

13. Bizitzako uneraren batean, zure buruaz beste egitea pentsatu duzu seriozki?

- Bai 1
Ez 2

14. Pentsamendu horiek azken 12 hilabeteetan izan dituzu?

- Bai 1
Ez 2

15. a) Zure ustez, nolakoa da zure bizitza soziala?

- Oso atsegina 1
Nahiko atsegina 2
Atsegin gutxikoa 3
Batere ez atsegina 4

15. b) Zure osasuna nolakoa dela esango zenuke, oro har?

- Oso ona 1
Ona 2
Hala-holakoa 3
Txarra 4
Oso txarra 5

15.c) Zure aho-hortzen osasuna nolakoa dela esango zenuke?

- Bikaina 1
Oso ona 2
Ona 3
Hala-holakoa 4
Txarra 5

16. a) Parte hartzen al duzu borondatezko elkarteren bateko (politika-, erlijio-, ingurumen-, kirol-taldeak, lankidetzak, erakundeak, etab.) jardueretan?

- Bai, modu erregularrean 1
Batzuetan 2
Inoiz ez edo ia inoiz ez 3

Honako galdera hauetan jendearengan zer-nolako konfiantza dugun adieraziko dugu.


16. b) Oro har, zure ustez, jende gehienarekin fida zaitzke, edo inoiz ez zara aski zuhurra gainerakoekin tratatzerakoan?

Kokatu zure burua 0tik 10erako eskalan; 0k esan nahi du «Inoiz ez zara aski zuhurra»; eta 10ak esan nahi du «Jende gehienarekin fida zaitzke».

Inoiz ez zara aski zuhurra



Jende gehienarekin fida zaitzke



16. c) Jende gehiena, ahalko balu, zutaz aprobetxatuko litzatekeela uste duzu, edo zurekin zintzoa izango litzatekeela?

Kokatu zure burua 0tik 10erako eskalan. 0k esan nahi du “**Jende gehiena nitaz aprobetxatzen saiatuko litzateke**”; eta 10ak esan nahi du “**Jende gehiena nirekin zintzoa izango litzateke**”.

**Jende gehiena nitaz
aprobetxatzen
saiatuko litzateke**

**Jende gehiena nirekin
zintzoa izango
litzateke**

A horizontal scale with boxes numbered 0 to 10. An arrow points down to the box '0' from the text 'Jende gehiena nitaz aprobetxatzen saiatuko litzateke'. Another arrow points down to the box '10' from the text 'Jende gehiena nirekin zintzoa izango litzateke'.

16. d) Gehienetan, jendea gainerakoak laguntzen saiatzen da edo bere buruari baino ez dio erreparatzen?

Kokatu zure burua 0tik 10erako eskalan. 0k esan nahi du “**Gehienetan, jendeak bere buruari erreparatzen dio**”; eta 10ak esan nahi du “**Gehienetan, jendea gainerakoak laguntzen saiatzen da**”.

**Gehienetan, jendeak
bere buruari
erreparatzen dio**

**Gehienetan, jendea
gainerakoak laguntzen
saiatzen da**

A horizontal scale with boxes numbered 0 to 10. An arrow points down to the box '0' from the text 'Gehienetan, jendeak bere buruari erreparatzen dio'. Another arrow points down to the box '10' from the text 'Gehienetan, jendea gainerakoak laguntzen saiatzen da'.

Jarraian, bizitzan egunero ematen diren egoera batzuen zerrenda daukazu. Egoera hauetan deskribatzen da beste pertsonak guri laguntza emateko egiten dutena edo egin dezaketena.

16. e) Mesedez, jar ezazu zure burua 1etik 5era zenbatutako eskalan: izan ere, 1ak adierazten du “Nik nahi baino askoz ere gutxiago**”, eta 5ak adierazten du “**Nik nahi beste**”.**

	Nik nahi baino askoz ere gutxiago	Nik nahi baino gutxiago	Ez asko ez gutxi	Ia nik nahi beste	Nik nahi beste
1. Nire lagunak eta senideak bisitatzen naute	1	2	3	4	5
2. Nire etxearekin zerikusia daukaten kontuekin laguntzen naute	1	2	3	4	5
3. Nire lana edo zereginak ondo egiten ditudanean, goraiamenak eta esker onak ematen dizkidate	1	2	3	4	5
4. Niri gertatzen zaidanaz kezkatzen diren pertsonak ditut	1	2	3	4	5
5. Maitasuna eta afektua ematen dizkidate	1	2	3	4	5
6. Nire laneko edo etxeko arazoei buruz beste batekin hitz egiteko aukera dut	1	2	3	4	5
7. Nire arazo pertsonalei eta familiarrei buruz beste batekin hitz egiteko aukera dut	1	2	3	4	5
8. Nire arazo ekonomikoez beste batekin hitz egiteko aukera dut	1	2	3	4	5
9. Gonbidapenak izaten ditut, denbora eman eta beste pertsona batzuekin irteteko	1	2	3	4	5
10. Aholku onak izaten ditut, nire bizitzan jazoera garrantzitsuren bat gertatzen zaidanean	1	2	3	4	5
11. Ohean gaixo nagoenean laguntza izaten dut	1	2	3	4	5

16.f) Bakarrik sentitzen zara?

- Beti 1
 - Askotan 2
 - Batzuetan..... 3
 - Inoiz ez 4
-

17. Idatzi zenbaki bat

Gutxi gorabehera: **zein da zure pisua oinetakorik gabe?** kilogramo.

18. Idatzi zenbaki bat

Gutxi gorabehera: **zein da zure altuera oinetakorik gabe?** zentimetro.

19. Zure altueraren arabera, zure ustez, nolakoa da orain duzun pisua?

- Gehiegizkoa..... 1
 - Normala..... 2
 - Eskasa..... 3
-

20. Gutxi gorabehera, eguneko zenbat ordu egiten duzu lo normalean? Kontuan izan siesta-orduak

ordu.

OSASUN ARAZO KRONIKOAK ETA LAGUNTZA JARRAITUTASUNA

Galdera hauek gaixotasun kronikoak izateari eta horien zainketei buruzkoak dira.

21. Ba al duzu gaixotasun edo osasun-arazo kronikorik edo luzerik? (6 hilabete edo gehiagotan)

Bai..... 1
Ez..... 2

22. Azken 12 hilabeteetan, osasun-arrazoi edo gaixotasun bategatik kontsulta egin al diozu osasun-arloko profesionalen bati?(medikuren bati, erizainen bati...)

Bai..... 1
Ez..... 2

Aurreko bi galdereri “BAI” erantzun baldin badiezu, erantzun mesedez honako galdera hauei (taula osoa).

IEXPAC ESKALA	Beti	Ia beti	Batzuetan	Ia inoiz	Inoiz ez
23. Nire bizimodua errespetatzen dute Nitaz arduratzen diren profesionalak entzun egiten didate; nire beharrei, ohiturei eta lehentasunei buruz galdetzen didate zainketa-plana eta tratamendua egokitze aldera.	1	2	3	4	5
24. Arreta ona eskaintzeko koordinaturik daude Osasun- eta gizarte-zerbitzuak nire ongizatea eta nire inguruko (familia, auzoa, herria, hiria) bizi-kalitatea hobetzeko koordinatzen dira.	1	2	3	4	5
25. Internet bidez informazioa eskuratzen laguntzen didate Nire gaixotasuna, tratamendua eta horiek nire bizitzan izan ditzaketen ondorioak hobeto ezagutzeko webguneen eta Interneteko foruen berri ematen didate profesionalak	1	2	3	4	5
26. Nire burua hobeto zaindu dezaket orain Konfiantza handiagoa dut nire burua zaintzeko, nire osasun-arazoak kudeatzeko eta nire autonomia mantentzeko.	1	2	3	4	5
27. Galdetu eta tratamendu-plana jarraitzen laguntzen didate Nire zainketa-plana eta tratamendua betetzen ditudala berrikusten dut profesionalekin.	1	2	3	4	5
28. Bizimodu osasuntsuagoa izateko eta nire gaixotasuna hobeto kontrolatzeko helburuak finkatzen ditugu Elikadurari, ariketa fisikoari eta medikazioa behar bezala hartzeari buruzko helburuak adostu ditut hartzen nauten profesionalekin, nire gaixotasuna hobeto kontrolatzearen.	1	2	3	4	5
29. Internet eta mugikorra erabiltzen ditut nire historia klinikoa kontsultatzeko Internet edo nire Osasun Zerbitzuak mugikorretarako duen aplikazioa erabiltzen ditut historia klinikoa, egindako frogen emaitzak eta programatutako hitzorduak kontsultatzeko, bai eta beste zerbitzu batzuk atzikitze ere.	1	2	3	4	5
30. Medikazioa behar bezala hartzen dudala ziurtatzen dute Zaintzen nauten profesionalak hartzen ditudan sendagai guztiak, posologia eta horien eragina berrikusten dituzte nirekin.	1	2	3	4	5
31. Nire ongizatearen ardura hartzen dute Nitaz arduratzen diren profesionalak nire bizi-kalitateaz kezkatzen dira eta nire ongizatearekin konprometituri daudela uste dut.	1	2	3	4	5
32. Lagungarri suerta dakizkidakeen osasun- eta gizarte-baliabideen berri ematen didate Artatzen nauten profesionalak eskuragarri ditudan (auzoan, hirian, edo herrian) osasun- eta gizarte-baliabideei buruzko informazioa ematen didate, nire osasun-arazoak hobetzeko eta nire burua hobeto zaintzeko erabilgarri izango direlakoan.	1	2	3	4	5
33. Beste pazienteekin hitz egiteko adorea ematen didate Profesionalak paziente-taldeetan parte hartzera bultzatzen naute, gure burua zaintzeari buruzko informazioa eta esperientziak partekatze eta gure osasuna hobetze aldera.	1	2	3	4	5
34. Azken hiru urteotan ospitaleratu bazaituzte, erantzun mesedez ondorengo galderari: Nitaz arduratzen dira ospitalean egon ostean etxera heltzen naizenean Ospitaleraturik egon eta alta jaso ondoren, deitu edo bisitan etorri zaizkit etxera nola nongoen ikusteko eta zer zainketa behar nituen jakiteko	1	2	3	4	5

PREBENTZIOKO PRAKTIKAK.

Honako galdera hauek prebentzioari buruz egin ditzakezun zainketa eta jarduera batzuei dagozkie
Egin zirkulu bat zure erantzunaren zenbakian.

35. Hartu al dizu inoiz osasun-profesional batek tentsioa (arteria-presioa), farmazietan egiten dituzun neurketetz gain?

Bai 1

Ez 2

36. Noiz hartu zizun azkeneko aldiz tentsioa (arteria-presioa) osasun-profesional batek?

Azken 12 hilabeteetan 1

Orain dela urtebete baino gehiago, baina bi urte baino gutxiago .. 2

Orain dela bi urte edo gehiago, baina bost urte baino gutxiago 3

Orain dela bost urte edo gehiago..... 4

37. Neurtu al dizute inoiz kolesterolaren maila medikuak aginduta, farmazietan egiten dituzun neurketetz gain?

Bai 1

Ez 2

38. Noiz egin dizute azkeneko kolesterol-analisia?

Azken 12 hilabeteetan 1

Orain dela urtebete baino gehiago, baina bi urte baino gutxiago .. 2

Orain dela bi urte edo gehiago, baina bost urte baino gutxiago 3

Orain dela bost urte edo gehiago..... 4

39. Neurtu al dizute inoiz odoleko azukre maila?

Bai 1

Ez 2

40. Noiz neurtu zizuten azkeneko aldiz odoleko azukre maila?

Azken 12 hilabeteetan 1

Orain dela urtebete baino gehiago eta 5 urte baino gutxiago 2

Orain dela 5 urte baino gehiago 3

Urtero, gripearen kontra txertatzeko kanpaina egiten da, biztanle-talde zehatz batzuei zuzenduta (gaixotasun kronikoak dituztenei, 65 urtetik gorakoei...).

41. Jartzen al duzu urtero gripearen txertoa?

Bai 1

Ez 2

42. Zergatik ez duzu jartzen gripearen txertoa? Aukeratu arrazoi bat bakarrik, garrantzitsuena.

Ez nago gomendatzen zaien taldeen artean 1

Ez du ezertarako balio 2

Ez nekien gripearen kontra txertatzeko gomendiorik zegoenik 3

Konplikazioak egon daitezke 4

Ez dakit nora jo behar dudana..... 5

Kalte egiten dit 6

Ahaztu egiten zait joatea 7

Ez dakit 8

Medikuak ez jartzeko agindu dit 9

Mesedez, galde-sorta betetzen jarraitzeko, adierazi “X” batez zure adin-taldea, eta joan dagokizun galderara.

Zein adin-taldetan zaude?

EMAKUMEA: 50 URTE BAINO GUTXIAGO ditut		→ 48. galdera (12. or.)
GIZONA: 50 URTE BAINO GUTXIAGO ditut		→ 55.a galdera (13. or.)
50 URTE BAINO GEHIAGO ditut		→ 43. galdera

50 URTEKO EDO GEHIAGOKO PERTSONA GUZTIENTZAT

Gaur egun, koloneko edo ondesteko minbizia goiz detektatzeko aukera ematen duten probak daude.

43. Egin al duzu ondorengo probetakoren bat, minbizi mota hori duzun jakiteko? (egin dizkizuten proba mota guztiak aukeratu)

	BAI	EZ
1) Eginkarietan (kakatan) odola detektatzeko analisisa	1	2
2) Errektoskopia / kolonoskopia	1	2
3) Beste bat	1	2
4) Ez dut probarik egin	1	2

44. Kontuan hartu egin duzun azkeneko proba. Nork gomendatu zizun egitea?

Nik neuk eskatu nuen 1
 Osakidetzaren Goiz Detektatzeko Programaren bitartez lortu nuen hitzordua 2
 Osakidetzako familia-medikuak agindu zidan 3
 Osakidetzako mediku espezialista batek agindu zidan..... 4
 Mediku pribatu batek agindu zidan..... 5
 Enpresako medikuak agindu zidan..... 6
 Beste norbaitek..... 7

Ondoren, berriro adierazi “X” batez zure adin-taldea, eta joan dagokizun galderara. Zein adin-taldetan zaude?

70 urte baino GUTXIAGO ditut		→ 45. galdera
EMAKUMEA: 70 urte edo gehiago ditut		→ 48. galdera (12. or.)
GIZONA: 70 urte edo gehiago ditut		→ 55.a galdera (13. or.)

50 URTETIK ETA 69 URTERA BITARTEKO PERTSONENTZAT (biak barne) BAKARRIK

Osakidetzaren Koloneko Minbizia Detektatzeko Programak zure adin tarteko pertsoneri eskutitz bat bidaltzen die koloneko minbizia goiz detektatzeko programa batean parte hartzeko gonbitea egiteko

45. Jaso al duzu halako eskutitzik?

Bai 1
 Ez 2

Joan 48. galderara (12. or.)

46. Utzi al zenuen eginkarietan (kakatan) odola detektatzeko probaren lagina osasun-zentroan?

Bai.. 1 → Joan 48. galderara (12. or.)
 Ez..... 2

47. Zergatik ez zenuen utzi?

Ezin izan nuen, familia-kontuengatik edo beste pertsona bat edo batzuk zaintzeagatik	1
Ezin izan nuen, laneko kontuengatik	2
Eskutitza iritsi zenean, ez nengoen ohiko bizitokian	3
Ez ditut emaitzak ezagutu nahi	4
Proba honen edo ondorengo proben (kolonoskopia) ezaugarriengatik	5
Ez dut behar, osasuntsu nago	6
Ez dut uste ezertarako balio duenik edo ez zait iruditzen nire osasunerako garrantzitsua denik	7
Aurretik egin didate proba	8
Jadanik minbizia diagnostikatu didate	9
Beste batzuk	10

Ondoren, berriro adierazi “X” batez zure taldea, eta jarraitu galde-sorta geziak adierazten duen galderan. Zein taldetan zaude?

EMAKUMEA		→ 48. galdera
GIZONA		→ 55.a galdera (13. or.)

Mamografia bularren erradiografia da. Mamografiak koskorrak detektatzeko eta garaiz tratatu ahal izateko balio du.

48. Noiz egin dizute azkeneko mamografia?

Inoiz ere ez	1	}
Orain dela urtebete baino gutxiago	2	
Orain dela urtebete edo gehiago, baina 2 urte baino gutxiago... ..	3	
Orain dela 2 urte edo gehiago, baina 3 urte baino gutxiago.....	4	
Orain dela 3 urte edo gehiago, baina 4 urte baino gutxiago	5	
Orain dela 4 urte edo gehiago, baina 5 urte baino gutxiago	6	
Orain dela bost urte baino gehiago	7	

49. Zeinek esan zizun egiteko (azken mamografia)?

Nik neuk eskatu nuen	1
Osakidetzaren Bularreko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programaren bidez lortu nuen hitzordua.....	2
Osakidetzako familia-medikuak agindu zidan	3
Osakidetzako mediku espezialista batek agindu zidan.....	4
Mediku pribatu batek agindu zidan.....	5
Enpresako medikuak agindu zidan.....	6
Beste norbaitek	7

Ondoren, berriro adierazi “X” batez zure taldea, eta jarraitu galde-sorta geziak adierazten duen galderan.

EMAKUMEA: 50 urte baino gutxiago ditut		→ 53. galdera (13. or.)
EMAKUMEA: 50 urte edo gehiago ditut		→ 50. galdera

50 URTEKO EDO GEHIAGOKO EMAKUMEENTZAT BAKARRIK

50. Osakidetzaren Bularreko Minbizia Goiz Detektatzeko Programak mamografia bat egiteko gonbidapen eskutitzak bidaltzen ditu. Jaso duzu halako eskutitzik?

Bai	1	→	<p>51. Hitzordua zenuenean, joan al zinen mamografia egitera?</p> <table border="0"> <tr> <td>Bai, hitzordu guztietan</td> <td>1</td> </tr> <tr> <td>Bai, baina ez hitzordu guztietan</td> <td>2</td> </tr> <tr> <td>Inoiz ere ez.....</td> <td>3</td> </tr> </table>	Bai, hitzordu guztietan	1	Bai, baina ez hitzordu guztietan	2	Inoiz ere ez.....	3	→	<p>Joan 53. galderara (13. or.)</p>
Bai, hitzordu guztietan	1										
Bai, baina ez hitzordu guztietan	2										
Inoiz ere ez.....	3										
Ez	2	↓									

Joan 53. galderara (13. or.)

52. Zergatik ez zinen joan? Aukeratu arrazoi bat bakarrik, garrantzitsuen:

Jadanik diagnostikatuta daukat bularreko minbizia	1
Ez nuen eskutitza garaiz jaso	2
Ordutegia ez zetorkidan ondo	3
Ez ditut emaitzak ezagutu nahi	4
Ez dut uste ezertarako balio duenik edo ez zait iruditzen nire osasunerako garrantzitsua denik	5
Osakidetzan egin behar zidaten edo aurretik egina nuen	6
Zentru pribatu batean egin behar zidaten edo aurretik egina nuen	7
Ezin izan nuen; familia-kontuengatik edo beste pertsona bat edo batzuk zaintzeagatik	8
Ezin izan nuen; laneko kontuengatik	9
Probaren ezaugarriengatik	10
Beste batzuk	11

EMAKUME GUZTIENTZAT

Baginako zitologia baginako zelulen lagin bat biltzean datza, eta zenbait gaixotasun prebenitzeko balio du.

53.a) Noiz egin dizute azkeneko baginako zitologia?

Inoiz ez.....	1	→	Joan 53.b galderara, eta ondoren 55.a galderara
Orain dela hiru urte edo gutxiago.....	2	}	
Orain dela hiru urte baino gehiago eta bost urte baino gutxiago	3		Joan 54. galderara
Orain dela bost urte edo gehiago.....	4		

53.b) Zergatik ez duzu inoiz egin baginako zitologiarik?

→ Erantzun eta gero joan 55.a galderara

Ez didate gomendatu	1
Ez nekien.....	2
Lotsa ematen dit	3
Ez dut behar, osasuntsu nago	4
Beste arrazoi batzuk	5

54. Non egin zizuten azkeneko baginako zitologia?

Osakidetzako laguntza-zentro batean	1
Kontsulta pribatuan	2

PERTSONA GUZTIENTZAT

55.a) Badakizu zeri buruzkoa den Aurretiazko Borondateen Dokumentua edo Bizi-Testamentua?

Bai	1
Ez	2

55.b) Aurretiazko Borondatezko Adierazpenek edo Bizi-Testamentuak gure zaintzekin eta arreta medikuarekin zerikusia dituzte, norberak adierazi ezin duen edo norbere burujabetasuna galtzen duen kasurako. Gai horretaz hitz egin duzu medikuarekin edo erizainarekin?

Bai	1
Ez, eta momentuz ez dut egiteko asmorik	2
Ez, baina gustatuko litzaidake hitz egitea.....	3

JARDUERA FISIKOA EDO ARIKETA FISIKOA.

PERTSONA GUZTIENTZAT

Honako galdera hauek lanean eta aisialdian (denbora librean) egiten duzun jarduera edo ariketa fisikoari buruzkoak dira.

Alderdi honek osasunean duen garrantzia dela-eta, azken 7 egunetan jarduera fisikoari eskaini diozun denborari buruzko galdera hauek betetzeko eskatzen dizugu. *Pentsa ezazu lanean edo etxean egiten dituzun jardueretan, edo toki batetik bestera mugitzean edo zure kirol, ariketa edo aisi aldietan.*

Pentsatu azken 7 egunetan egin dituzun jarduera bizietan. Jarduera fisiko biziak esaterakoan, esfortzu fisiko bizia inplikatzeko dutenak eta normalean baino bizikiago arnasaraztea eragiten dizutenak esan nahi da.

Pentsatu, gutxienez, 10 minututan jarraian egin dituzunetan bakarrik.

56.a) Azken 7 egunetan, zenbat egunetan egin zenituen horrelako jarduera fisiko biziak, adibidez: objektu astunak altxatzea, aitzurtzea, ariketa aerobikoak egitea, bizikletan azkar ibiltzea?

0	1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---

Egunetan asteko

↓

Joan 57.a galderara

56.b) Normalean, guztira zenbat denbora jardun zenuen jarduera fisiko bizi bat egiten egun horietako batean?

Orduak eguneko

Minutuak eguneko

Pentsatu azken 7 egunetan egin dituzun jarduera moderatuetan. Jarduera fisiko moderatuak dira esfortzu fisiko moderatua eskatzen dutenak eta normalean baino zertxobait bizikiago arnasaraztea eragiten dizutenak.

Pentsatu, gutxienez, 10 minututan jarraian egin dituzunetan bakarrik.

57.a) Azken 7 egunetan, zenbat egunetan egin zenuen jarduera fisiko moderatua, adibidez: pisu arinak eramatea, bizikletan abiadura erregularrean ibiltzea, edo tenisean binaka jolastea? Mesedez, ez sartu oinez ibiltzea.

0	1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---

Egunetan asteko

↓

Joan 58.a galderara

57. b) Normalean, guztira zenbat denbora jardun zenuen jarduera fisiko moderatua egiten egun horietako batean?

Orduak eguneko

Minutuak eguneko

Pentsatu azken 7 egunetan oinetz ibiltzen jardun duzun denboran. Honako hauek barne hartzen ditu: lanean edo etxean ibiltzea, toki batetik bestera joatea, edo kirola egiteko, aisialdirako edo ariketa fisiko egiteagatik egiten dituzun ibilaldiak.

58.a) Azken 7 egunetan, zenbat egunetan oinetz ibili zara gutxienez 10 minutu jarraian, ibili zaren bakoitzean?

0	1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---	---

Egunetan asteko

↓

Joan 59.a galderara (15. or.)

58. b) Normalean, guztira zenbat denbora eman zenuen ibiltzen egun horietako batean?

Orduak eguneko

Minutuak eguneko

Honako galdera hau eserita igarotako denborari buruzkoa da, eta lanean, etxean, ikasgelan eta aisialdian eserita egondako denbora barne hartzen du.

59. a) Azken 7 egunetan, zenbat denbora egon zara eserita egun normal batean? Bulegoan, lagunak bisitatzen, irakurtzen, bidaiatzen, ikasten edo telebista ikusten emandako denbora sartu behar duzu.

Orduak eguneko

Minutuak eguneko

59. b) Eserita zauden denbora horretan, ohiko egun batean, baduzu etenik egiteko ohiturarik (orduro gutxienez), jaikitze edo luzatzeko edo apur batean ibiltzeko?

Bai..... 1

Ez..... 2

60. Denbora librean (aisialdian), egiten al duzu normalean nahi izango zenukeen ariketa edo jarduera fisiko guztia?

Bai 1

Ez..... 2

61. Zergaitik?

Ez dudalako denborarik, lana, familia-eginbeharrak edo zaintza-betebeharrak direla-eta	1
Nire osasun-arazoen galarazten didatelako	2
Borondate faltagatik	3
Toki egokirik ez dudalako.....	4
Baliabide ekonomiko faltagatik	5
Lanean edo ikastetxean ariketa egiten dudalako	6
Beste arrazoi batzuegatik	7

62. Normalean, nola egiten duzu zeure etxetik lantokirako edo ikastetxerako joan-etorria?

(erantzun bide hori norbaiti laguntzeko egiten baduzu ere, adibidez haurrak eskolara eramateko).

Oinez	1
Bizikletaz	2
Ibilgailu partikularrez (automobila, motozikleta).....	3
Garraio publikoz.....	4
Mistoa (garraio publikoa eta beste ibilgailu bat konbinatuta)....	5
Ez ditut ibilbide horiek egiten	6

LANEKO BALDINTZAK

LAN EGITEN DUTENENTZAT BAKARRIK

OHARRA: Mesedez, erantzun atal honi inkestaren aurreko astean lanpostu bat izan baduzu, gutxienez asteko ordu batekoa izan bada ere.

63.a) Aurreko astean bazenuen lanpostu bat, nahiz eta astero ordu batekoa izan?

Bai 1

Ez 2

Joan 75. galderara (18. or.)

Laneko baldintzek zerikusi handia izan dezakete pertsonen osasunarekin. Honako galdera hauek zure laneko baldintzak zeintzuk diren edo izan diren jakiteko dira.

63.b) Zenbateraino zaude pozik zure lanean?

Oso pozik..... 1

Pozik..... 2

Ez hain pozik 3

Ez nago batere pozik 4

63.c. Galdera hauek zure oraingo lanari edo izan zenuen azken lanari buruzkoak dira. Guztiei erantzun, mesedez.

	Beti	Ia beti	Askotan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ez
1. Oso arin lan egin behar izaten <i>dut/nuen</i> .	1	2	3	4	5	6
2. Lan asko izaten dut/nuen, eta estutu egiten <i>naiz/nintzen</i> .	1	2	3	4	5	6
3. Aldi berean lan bat baino gehiago egin behar izaten <i>dut/nuen</i> .	1	2	3	4	5	6
4. Nire lanean arreta handia edo oso handia mantendu behar izaten <i>dut/nuen</i> .	1	2	3	4	5	6
5. Lan monotonoa eta errepikakorra egiten <i>dut/nuen</i> .	1	2	3	4	5	6
6. Egunerako neure lan-erritmoa jar <i>dezaket/nezakeen</i> .	1	2	3	4	5	6
7. Erabakiak har <i>ditzaket/nitzakeen</i> ea atazak nola banatu edo zein prozedura bidez gauzatu.	1	2	3	4	5	6
8. Uste dut egokiak <i>dirrela/zirela</i> lankideekin <i>ditudan/nituen</i> harremanak.	1	2	3	4	5	6
9. Erasanda egoten <i>naiz/nintzen</i> lankideren batekin <i>ditudan/nituen</i> tirabirak <i>dirrela-eta/zirela-eta</i> , irainak, lankideren baten edo arduradunen jarrera iraingarriak.	1	2	3	4	5	6
10. Irudipena <i>dut/nuen</i> baliokoa <i>dela/zela</i> nire lana.	1	2	3	4	5	6

Galdera hauek zure oraingo lanari edo izan zenuen azken lanari buruzkoak dira. Guztiei erantzun, mesedez.

64. Besteren konturako egiten duzu/egin zenuen lan?

Bai 1

Ez 2

Joan 75. galderara (18. or.)

65. Zure kontratua zenbat denborarako *da/zen*?

Kontratu iraunkorra 0

Urtebete baino gehiago 1

Aldi baterako, amaiera-egunik gabe 2

6 hilabetetik 12ra 3

6 hilabete baino gutxiago 4

66. Guztira, zenbat denboran lan egin duzu/zenuen enpresa horretarako?

10 urte baino gehiago	0
5 urtetik 10era.....	1
2 urte baino gehiago baina 5 urte baino gutxiago	2
6 hilabetetik 2 urtera	3
6 hilabete baino gutxiago.....	4

67. Zure soldatak ematen al dizu/zizun aukera ustekabeko gastu garrantzitsuak ordaintzeko?

Beti	0
Askotan.....	1
Batzuetan	2
Gutxitan	3
Inoiz ez	4

68. Nola zehaztu ziren zure soldata-baldintzak?

Hitzarmen kolektiboan jartzen duena/zuena betetzen da/zen, zuzen-zuzen	0
Nire lan-taldeak erabaki zuen	1
Nire arduradunen eta nire artean erabaki zen	2
Enpresako zuzendaritzak edo nire arduradunek erabaki zuten, beren kasa	3
Ez dakit.....	4

69. Beldur al zara/zinen kontrako ondorioz izango duzun/zenuen, lan-baldintza hobek eskatzen badituzu/bazenuen?

Inoiz ez	0
Gutxitan	1
Batzuetan	2
Askotan.....	3
Beti	4

70. Babes gabe al zaude/zeunden zure arduradunen bidegabekeriaren aurrean?

Inoiz ez	0
Gutxitan	1
Batzuetan	2
Askotan.....	3
Beti	4

71. Eskatutako guztia egingo/egin ez bazenu, lanetik bota egingo al zintuzkete/zintuzketen?

Inoiz ez	0
Gutxitan	1
Batzuetan	2
Askotan.....	3
Beti	4

72. Ba al duzu/Izango al zenukeen indemnitazio-eskubiderik botatzen bazaituzte/bota izan bazintuzte?

Bai	0
Ez	1
Ez dakit.....	2

73. Asteko jai-egunak arazorik gabe har al ditzakezu/zenitzakeen?

Beti	0
Askotan.....	1
Batzuetan	2
Gutxitan	3
Inoiz ez	4

74. Baimen-egunik har al dezakezu/zenezakeen arrazoi pertsonalengatik?

Beti	0
Askotan.....	1
Batzuetan	2
Gutxitan	3
Inoiz ez	4

TABAKOA

Honako galdera hauek tabako-kontsumoari buruzkoak dira.

Modu pasiboan edo «nahitaez» erretzea esaten zaio besteek erretzen dituzten zigarroen kea arnasteari. Zuk erre zein ez-erre kontuan hartu gabe...

75. Erantzun, mesedez, galdera guzti hauek, eta adierazi zenbateko maiztasunaz egoten zaren besteek erretzen duten tabakoaren kea arnasten...

	Bai, egunero	Bai, sarri askotan	Bai, noizean behin	Bai, baina gutxitan	Inoiz ere ez
1. Zure etxean.	1	2	3	4	5
2. Zure lantoki edo ikastetxean (jubilatuek eta langabetuek egunaren zati handiena igarotzen duten lekuan pentsatuz erantzun behar dute).	1	2	3	4	5
3. Beste leku itxi batzuetan, adibidez, kafetegi, jatetxe, klub eta abarretan	1	2	3	4	5
4. Automobilean	1	2	3	4	5

76. Zure bizitzan zehar, erre al dituzu gutxienez 100 zigarro (5 pakete)?

Bai 1

Ez 2

Joan 89. galderara (20. or.)

77. Gaur egun, egunero erretzen al duzu?

Bai 1

Ez 2

Joan 83. galderara (19. or.)

78. Zenbat urterekin hasi zinen egunero erretzen? (Idatzi urteak)

┌───┐ urterekin

79. Idatzi zenbatekoa gutxi gorabehera. (Idatzi kopurua)

Biltzeko zenbat zigarro erretzen duzu egunean? ┌───┐ zigarro.

Paketeko zenbat zigarro erretzen duzu egunean? ┌───┐ zigarro.

Zenbat puru erretzen duzu egunean? ┌───┐ puru.

Zenbat pipa erretzen duzu egunean? ┌───┐ pipa.

80. Joan den urtearekin konparatuz, gaur egun...

Seinalatu zirkuluaz galdera (a-d) bakoitzaren erantzuna.

	Bai	Ez
a) Gehiago erretzen duzu.	1	2
b) Gutxiago erretzen duzu.	1	2
c) Marka gogorragoa erretzen duzu.	1	2
d) Marka suabeagoa erretzen duzu.	1	2

81. Azken 12 hilabeteetan saiatu al zara erretzeari uzten?

Bai 1
Ez 2

82. Erretzeari uztea gustatuko litzaizuke?

Bai 1
Ez 2

Joan 88. galderara

83. Honako esaldi hauen artean, zeinek deskribatzen du tabakoarekin duzun portaera?

Egin zirkulu bat zure erantzunaren zenbakian eta jarraitu geziari, honek seinalatuko baitizu bete behar duzun galde-sortaren atala.

Noizean behin baino ez dut erretzen	1	→ Joan 84. galderara
Orain ez dut erretzen; lehen, noizean behin erretzen nuen	2	→ Joan 89. galderara (20. or.)
Orain ez dut erretzen; lehen, egunero erretzen nuen	3	→ Joan 86. galderara

84. Idatzi zenbatekoa gutxi gorabehera:

Biltzeko zenbat zigarro erretzen duzu astean? zigarro.

Paketeko zenbat zigarro erretzen duzu astean? zigarro.

Zenbat puru erretzen duzu astean? puru.

Zenbat pipa erretzen duzu astean? pipa.

85. Erre al duzu inoiz egunero?

Bai 1
Ez 2

→ Joan 88. galderara

86. Orain dela zenbat denbora utzi zenion egunero erretzeari?

urte hilabete

87. Zenbat urterekin hasi zinen egunero erretzen?

urterekin

88. Zure familiako medikuaren kontsultan, medikuak edo erizainak aholkatu al dizute inoiz erretzeari uzteko?

Bai 1
Ez 2
Ez naiz oroitzen 3
Ez naiz familia-medikuarengana edo erizainarengana joan 4

ALKOHOLA

Honako galdera hauek alkoholaren kontsumoari buruzkoak dira.

89. Azken hamabi hilabeteetan, zenbat aldiz kontsumitu dituzu alkoholdun edariak (ardo, sagardo, garagardo, brandya...)?

Egin zirkulu bat zure erantzunaren zenbakian eta jarraitu geziari, honek seinalatuko baitizu bete behar duzun galde-sortaren atala.

Egunero	1	→ Joan 90. galderara
4- 6 aldiz astean	2	
2-3 aldiz astean	3	
Astean behin	4	→ Joan 95. galderara
Hamabostean behin	5	
Hilean behin	6	
Hilean behin baino gutxiagotan	7	→ Joan 97. galderara
Ez dut edan azken 12 hilabeteetan	8	

90. Noizbehinka dastatu izan duzun alkoholdun edariren bat kontuan hartu gabe, zenbat urterekin hasi zinen ohituraz edaten?

Idatzi adina.

□□□ urterekin.

EDARI ALKOHOLDUNEN KONTSUMOA ASTELEHENETIK OSTEGUNERA

91. Kontuan hartu jatorduetan edan zenuena (gosari, hamaiketako, bazkari eta afarian) eta jatorduetatik kanpo edan zenuena (txikiteoa, ardoak, aperitiboak eta kopak). (Inkesta betetzen denean astelehena bada, idatzi azken osteguneari edandakoa).

Atzo...	Idatzi kopurua.	
. Zenbat baso sagardo edan zenuen?	□□□	baso sagardo
.Zenbat baso ardo edan zenuen? (tabernako 2 txikito = baso bat)	□□□	baso ardo
.Zenbat kaña garagardo edan zenuen? (2 labur edo zurito = kaña 1)	□□□	kaña garagardo
.Zenbat kopa (anisa, whiskia, patxarana, brandya...) edan zenuen?	□□□	kopa
.Zenbat konbinatu (kubak, gin-tonikak, gin-kasak...) edan zenuen	□□□	konbinatu
.Zenbat kalimotxo edan zenuen?	□□□	kalimotxo
.Zenbat bermut, bitter, fino, edan zenuen? (2 mariano = bermut 1)	□□□	bermut
.Zenbat likore-txupito edan zenuen?	□□□	txupito

EDARI ALKOHOLDUNEN KONTSUMOA ASTEBURUAN (OSTIRALETIK IGANDERA).

92. Kontuan hartu jatorduetan edan zenuena (gosari, hamaiketako, bazkari eta afarian) eta jatorduetatik kanpo edan zenuena (txikiteoa, ardoak, aperitiboak eta kopak). (Idatzi ostiral, larunbat eta igandean edandakoa).

Eta joan den asteburuan:	Idatzi kopurua.		
	OSTIRALEAN	LARUNBATEAN	IGANDEAN
. Zenbat baso sagardo edan zenuen?	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
. Zenbat baso ardo edan zenuen? (tabernako 2 txikito = baso bat)	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
. Zenbat kaña garagardo edan zenuen? (2 labur edo zurito = kaña 1)	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
. Zenbat kopa (anisa, whiskia, patxarana, brandya...) edan zenuen?	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
. Zenbat konbinatu (kubak, gin-tonikak, gin-kasak...) edan zenuen	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
. Zenbat kalimotxo edan zenuen?	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
. Zenbat bermut, bitter, fino, edan zenuen? (2 marianito = bermut 1)	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
. Zenbat likore-txupito edan zenuen?	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

93. Azken 12 hilabeteak kontuak hartuta, zer esango zenuke:

- Lehen baino gehiago edaten dut 1
 Lehen baino gutxiago edaten dut..... 2
 Azken 12 hilabeteetan nire kontsumoak ez du aldaketarik izan 3

94. Zeure familiako medikuaren kontsultan, medikuak edo erizainak jakinarazi al dizute gehiegizko alkohol kontsumoa kaltegarria dela osasunerako?

- Bai 1
 Ez 2
 Ez naiz oroitzen 3
 Ez naiz familia-medikuarengana edo erizainarengana joan..... 4

Irudi hauetan edari alkoholaren ohikoenen eta Edari Unitate Estandar deitutakoaren baliokidetzak ikus daitezke.

EDARI ALKOHOLDUNEN BALIOKIDETZA TXARTELA

Honako edari hauek alkoholaren edari-unitate estandar 1 dute



Honako edari hauek alkoholaren edari-unitate estandar 2 dituzte



Baliokidetza horien arabera, erantzun galdera hauei:

95. **GIZONAK.** Azken 12 hilabeteetan, zenbat bider hartu dituzu, aldi bakar batean, 6 edari-unitate estandar edo gehiago? Adibidez, guztira 6 edo gehiago ardo-kopa, kaña edo txupito; edo 3 edo gehiago kubata, whisky edo koñak; edo edari horien guztien konbinazioa. («Aldi bakar batean» diogunean, 4 orduetik 6 ordura bitarteko tartean esan nahi dugu).

Inoiz ere ez 1
Hilean behin baino gutxiagotan 2
Hilero 3
Astero 4
Egunero edo ia egunero 5

96. **EMAKUMEAK.** Azken 12 hilabeteetan, zenbat bider hartu dituzu, aldi bakar batean, 5 edari-unitate estandar edo gehiago? Adibidez, guztira 5 edo gehiago ardo-kopa, kaña edo txupito; edo 3 edo gehiago kubata, whisky edo koñak; edo edari horien guztien konbinazioa. («Aldi bakar batean» diogunean, 4 orduetik 6 ordura bitarteko tartean esan nahi dugu).

Inoiz ere ez 1
Hilean behin baino gutxiagotan 2
Hilero 3
Astero 4
Egunero edo ia egunero 5

89. galderan erantzuna: 1 o 2 o 3 o 4 denean, joan 101. galderara (23. or.), bestela joan 97. galderara

97. Esaldi hauen artean zeinek adierazten du hobeto bizitzan zehar izan duzun alkohol-kontsumoa?

Ez dut inoiz edan	1	→ joan 101. galderara (23. or.)
Noizean behin edaten dut	2	
Lehen ohituraz edaten nuen, baina orain ez dut edaten, edo noizean behin edaten dut	3	→ joan 98. galderara

98. Zenbat urterekin hasi zinen ohituraz edaten?

_____ urterekin.

99. Zenbat urterekin utzi zenion ohituraz edateari?

_____ urterekin.

100. Zenbat aldiz edaten zenuen?

Hilean 1-4 aldiz 1
Astean 2-3 aldiz 2
Astean 4-6 aldiz 3
Egunero 4

JATEKO OHITURAK.

101. Zenbat maiztasunekin jaten dituzu honako elikagaietako bakoitza? (bete ezazu hurrengo taula ilaraz)

	Egunero		Astean hirutan edo gehiagotan	Astean behin edo bitan	Astean behin baino gutxiagotan	Inoiz ez edo ia inoiz ez
		Unitate/errazio kopurua				
a) Fruta freskoa.	1 → <input type="text"/>		2	3	4	5
b) Fruitu- edo barazki-zuku naturala.	1 → <input type="text"/>		2	3	4	5
c) Haragia.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
d) Arraina.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
e) Pasta, arroza, patatak.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
f) Arrautzak.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
g) Ogia, zerealak.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
h) Barazkiak.	1 → <input type="text"/>		2	3	4	5
i) Lekaleak.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
j) Hestebeteak.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
k) Esnea, gazta, jogurta.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
l) Gozokiak (gailetak, pastelak, txokolatea, gominolak...).	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
m) Azukredun freskarriak.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
n) Janari lasterra (pizzak, hanburgesak, ogitartekoak).	1	<input type="text"/>	2	3	4	5
o) Aperitiboak edo pikatzeko janari gaziak, patata frijituak, gantxitoak, eta abar.	1	<input type="text"/>	2	3	4	5

SEXU- ETA GENERO-IDENTITATEA

Galdera honetan, sexu- eta genero-identitateari buruzko gaiak aipatzen dira, bai eta erakarpen fisiko, sexual, emozional, afektibo edo erromantikoari buruzkoak. Gai honi dagokionez pertsonak bizi dituzten egoera guztiak jasotzeko pentsatuta dago.

102. Gai honen inguruan pentsatzen duzunean, nolakotzat duzu zure burua (Erantzun bat baino gehiago. Nahi dituzun aukera guztiak hautatu).

	Bai	Ez	Ez daki	Ez du erantzun
a. Heterosexuala	1	2	8	9
b. Gaya	1	2	8	9
c. Lesbiana	1	2	8	9
d. Bisexuala, plurisexuala, pansexuala, polisexuala	1	2	8	9
e. Transexuala	1	2	8	9
f. Transgeneroa	1	2	8	9
g. Intersexuala	1	2	8	9
h. Queer-a edo intergeneroa	1	2	8	9
i. Bestela. Nola?	1	2	8	9

DISKRIMINAZIOA

103.1) Azken 12 hilabeteetan, zerbait egitea ukatu dizute, gogaitu zaituzte, gutxiago sentiarazi zaituzte edo diskriminatu zaituzte? Honako arrazoi hauengatik, adibidez: adina, sexua, etnia, jaioterria, ikasketa-maila, gizarte-klasea, hizkuntza, ideia politikoak, sexu-joera, erlijioa, ezgaitasuna, gaixotasuna edo beste arrazoi batzuk.

Bai..... 1
Ez..... 2



Joan 104. galderara 25.or.

103.2) Zein arrazoigatik? (Erantzun bat baino gehiago eman ahal duzu)

	Bai	Ez	Ez daki	Ez du erantzun
a. Adina	1	2	8	9
b. Sexua	1	2	8	9
c. Etnia	1	2	8	9
d. Jaioterria	1	2	8	9
e. Ikasketa-maila	1	2	8	9
f. Gizarte-klasea	1	2	8	9
g. Hizkuntza	1	2	8	9
h. Ideia politikoak	1	2	8	9
i. Sexu-joera.	1	2	8	9
j. Erlijioa	1	2	8	9
k. Ezgaitasuna edo gaixotasuna	1	2	8	9
l. Beste arrazoi batzuk. Zein?.....	1	2	8	9

ETXEBIZITZAREN BALDINTZAK ETA INGURUA

104. Azken 12 hilabeteetan, hotza egin duenean, aukerarik izan al duzu etxea tenperatura egokian izateko?

Bai 1
Ez 2

105. Azken 12 hilabeteetan, zailtasun ekonomikoak direla-eta, atzeratuta ibili zara etxebizitza nagusia mantentzearekin lotutako ordainagiriak ordaintzeko? (ura, gasa, argindarra, komunitatea eta abar).

Bai 1
Ez 2

106. Zure etxebizitzak badu honelako arazoren bat?

	Bai	Ez
a) Itoginak; hezetasunak hormetan, zoruan, sabaian edo zimenduetan;edo usteldurarik zoruan, leihoetako edo ateetako markoetan.	1	2
b) Argi naturalaren eskasia	1	2

107. Zure etxebizitzak honako arazoetakoren bat al du?

	Asko	Zertxobait	Batere ez
a) Etxebizitzatik kanpoko zarata gogaikarria da	1	2	3
b) Kanpoaldean usain txarra dago	1	2	3
c) Kontsumorako ura txarra da	1	2	3
d) Kaleak ez daude oso garbi	1	2	3
e) Airea oso kutsatuta dago, gertuko industriaren batengatik	1	2	3
f) Airea oso kutsatuta dago, beste arrazoi batzuk direla medio	1	2	3
g) Berdegune gutxi dago	1	2	3
h) Animaliak daude (txakurrak, katuak, usoak...) eta arazoak sortzen dituzte	1	2	3
i) Delinkuentzia, indarkeria edo bandalismoa etxean edo auzoan	1	2	3

108. Adierazi honako baieztapen hauekiko adostasun maila.

	Oso ados	Ados	Ez nago ados	Ez nago batere ados
a) Nire auzoan/herrian fruta eta barazki freskoak erosteko aukera ugari dago	1	2	3	4
b) Nire auzoan/herrian janari lasterra erosteko aukera ugari dago (pizzeriak, hanburesategiak, kebab-saltokiak, Macdonalds-ak, Burger King-ak...)	1	2	3	4
c) Nire auzoak/herriak ariketa fisikoa egiteko instalazioak ditu (gimnasioa, igerilekua, eta abar)	1	2	3	4
d) Nire auzo/herria ariketa fisikoa egiteko (paseatu, korrika egin...) inguru egokia da	1	2	3	4

109. Zure auzoan/herrian, zer eragozpen duzu, ariketa fisikoa egiteko?

Segurtasun eza 1
Zirkulazio handia 2
Espazio egokien falta 3
Bestelakoak 4 → Zein?

110. Gaur egun, Euskal Osasun Zerbitzuak (Osakidetza) informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrieekin (Internet, adibidez) lotutako zerbitzu batzuk jarri ditu abian, herritarrek osasun-laguntza, prebentzioa eta gaixotasunen tratamendua errazago eskura ditzaten. Adierazi ea zerbitzu hauek ezagutzen dituzun.

	a) Ezagutzen duzu?	b) Erabili duzu?	c) Adierazi gogobetetze maila 0tik (ez nago batere pozik) 10era (oso pozik)?
1. Familia-medikuarengana /Pediatararengana / Erizainarengana / Emaginarengana joateko aurretiazko hitzordua eskatzea Osakidetzaren webgunearen bitartez	Bai 1 →	Bai 1 →	_ _ _
	Ez 2	Ez 2	
2. Familia-medikuari edo erizainari kontsulta telefono bidez edo posta elektronikoko bidez egiteko aukera	Bai 1 →	Bai 1 →	_ _ _
	Ez 2	Ez 2	
3. Telefono bidezko osasun-aholkua: osasuneko profesionalek telefono bidez ematen duten zerbitzua, osasun-arazoei, sintomei, tratamenduei, eta abarrei buruzko galderak erantzuteko	Bai 1 →	Bai 1 →	_ _ _
	Ez 2	Ez 2	
4. Osasun-karpeta pertsonala: historia klinikoa internet bidez kontsultatzea	Bai 1 →	Bai 1 →	_ _ _
	Ez 2	Ez 2	

Galde-sorta hau amaitzeko, datu pertsonal batzuk eskatuko dizkizugu. Ez kezkatu, informazio hori estatistiketarako besterik ez dugu erabiliko, eta izenik gabe aztertuko dugu. Gainera, informazio hori, galde-sorta osoa bezalaxe, estatistika-arloko sekretu-arauen babespean eta datuak babesteko legearen babespean egongo da.

111. Emango zeniguke, NAN zenbakia, Atzeritarren Identifikazio-zenbakia (AIZ) edo, aurreko biak ez badituzu, pasaportearen zenbakia?

NAN edo AIZ edo PASAPORTE zenbakia

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

112. Nola bete duzu galde-sorta?

- Inkestazaileak bete du..... 1
- Tabletarekin, inkestazaileak lagunduta..... 2
- Nik bete dut, tabletarekin..... 3
- Nik bete dut, webgunearen bidez..... 4

**ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK
GALDE-SORTAREN AMAIERA**